

KIROL JUSTIZIAKO EUSKAL BATZORDEAREN EBAZPENA, BIZKAIKO PADEL FEDERAZIOAREN HAUTESKUNDE-BATZORDEAK 2016KO IRAILAREN 5EAN ETA 8AN HARTUTAKO ERABAKIEI BURUZKOA.

Espedientea: 18/2016

AURREKARIAK

LEHENA.- [REDACTED] jaunak, bere izenean eta 11 pertsona gehiago ordezkatzuz, errekurtsoa aurkeztu zuen irailaren 15ean, Bizkaiko Padel Federazioko hauteskunde-batzordeak irailaren 5ean hartutako erabakien aurka. Era berean, kautela-neurriak hartzeko eskatu zuen.

BIGARRENA.- KJEBko idazkariak, irailaren 22ko idazkiaren bidez, errekurtsoa helarazi zion Bizkaiko Padel Federazioari (aurrerantzean, BPF), eta hor eskatzen zen, batetik, espedientea eta, beharrezkoa balitz, alegazio-idazkia bidaltzeko, eta bestetik, beharrezkotzat jotzen zituzten froga-eginbide guztiak aurkezteko.

HIRUGARRENA.- Batzordeak irailaren 29ko bileran erabaki zuen Bizkaiko Padel Federazioaren hauteskunde-prozesua etetea.

LAUGARRENA.- Urriaren 5ean, BPFko «jarduneko legezko ordezkariak» bi idazki aurkeztu zituen:

- a) Lehena, alegazioena. Idazki horri jarraikiz, BPFk kontsiderazio batzuk adierazi zituen orain epaitzen ari den errekurtsoari eta batzorde horretako idazkariak irailaren 22an BPFri helarazi zionari dagokienez.

Puntu horretara helduta, egokia litzateke parentesi bat egitea jakinarazpen horri dagokionez. Batzordearen idazkariari irailaren 30ean bidalitako mezu elektronikoa baten bidez, BPFk adierazi zuen ez zuela

idazki horren berri izan hilaren 30era arte. Batzorde horretako idazkariak jakinarazi zuen jakinarazpen hori Postetxean entregatu zela. Orduan, BPFk honako hau adierazi zuen: “2016ko irailaren 23an, Asfedebiri jakinarazi zitzaion Kirol Justiziako Euskal Batzordeak egindako komunikazioa – 2016ko irailaren 22ko KJEB, Bizkaiko Padel Federazioaren hauteskunde-batzordeak egindako akordioen edo ebazpenaren aurka aurkeztutako errekurtsua jasotzen zuena –, 2016ko irailaren 5eko BPF. Asfedebik ez zion BPFri informatu KJEBren jakinarazpena jaso zuenik. Irailaren 30ean (...) jakin zen KJEBk 2016ko irailaren 22an eginiko jakinarazpenaren berri, BPFren bitartez. (Egindako alegazioen eta idazki honi jarraikiz igorritako dokumentazioaren berri emango da aurrerago).

- b)** Bigarren idazkia, berriz, aurretik aipatutako errekurtsua da; eta, hari jarraikiz, BPFk eskatu zuen «berraztertze-errekurtsu hau, 2016ko irailaren 29ko KJEBren erabakiaren kontrakoa, aurkeztutzat har zedin, bai eta baiestea ere, eta, horren ondorioz, errekurritutako ebazpen administratiboa baliogabetu eta efekturik gabe uztea, hauteskunde-prozesua bertan behera gera dadin».

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

LEHENA.- 14/1998 Legearen 138.b) artikuluan eta 310/2005 Dekretuaren 3.b) artikuluan ezarritakoaren arabera, KJEBk du errekurtsu hau ezagutzeko eskumena.

Bigarrena.- Batzorde horri bi gairen berri emango zaio:

- 1.- [REDACTED] jaunak eta 11 pertsona gehiagok egindako errekurtsua, hauteskunde-batzordeak irailaren 5ean hartutako erabakien kontrakoa; eta

2.- BPFk aurkeztutako errekurtsua, irailaren 29an batzordeak erabakitakoaren kontra, zeinari jarraikiz [REDACTED] jaunak eskatutako kautela-neurria hartzea onetsi zen.

HIRUGARRENA.- Errekurtsu hori errazago ulertzeko, gogorarazi behar dira, labur bada ere, aurrekari diren datuak:

1.- Apirilaren 19ko bileran, hauteskunde-batzordeak hauteskunde-errola onartu zuen behin betiko; eta 26ko bileran, kirol-klub eta kirol-elkarteen estamentuan, kirolarien estamentuan, epaileen estamentuan eta teknikarien estamentuan aurkeztutako hautagaitzak behin-behinean onartzea erabaki zuen. Halaber, aurkaratzeak egiteko bi eguneko epea ireki zuen.

2.- Erreklamazio-epearen barruan, gainerako klubek aurkaratzeak egin zituzten. Haren bitartez, salatu zuten 2015. urtean zehar ezta 2016ean ere, klub jakin batzuek kirol-jarduera handirik egin ez zutela Bizkaian; Horrez gain, salatu zuten [REDACTED], [REDACTED] eta [REDACTED] jaunek ez dutela Euskadiko Padel Federazioak egindako lizentziarik.

3.- Maiatzaren 2ko bileran, aurkeztutako erreklamazio guztiak onartu zituen hauteskunde-batzordeak, eta hautagaitzen errekurtsogileak baztertu zituen honako arrazoi hauengatik: klubek ez zutelako kirol-jarduera handirik egin, eta teknikariek eta epaileek BPFko kide direla frogatzen duen lizentziarik ez zutelako.

4.- Baztertutako errekurtsogileek aipaturiko akordioa errekurritu zuten, eta uztailaren 14an eginiko bileran batzorde honek erabaki zuen aurkeztutako errekurtsua onartzea, maiatzaren 2an hartutako erabakia hauteskunde-arautegira bat ez zettorrelako. (Eta horren arrazoa zera da: hauteskunde-errolak onartu eta hautagaitzak behin-behinean onartu ostean, aurkaratzeko aintzat har daitezkeen arrazoi bakarrak 10. artikuluan zerrendatuta daude. Horien artean ez dago hauteskunde-batzordeak emandako bat ere ez, hau da,

ez dago Bizkaian kirol-jarduera handirik egin ez izateari edo Euskadiko Padel Federazioak emandako lizentziarik ez izateari dagokien arrazoirik).

5.- BPFk ez zuen uztailaren 14an batzorde honek hartutako erabakiaren aurkako errekurtsorik aurkeztu, zuzenbidearekin bat datorrela ulertu zuten eta.

6.- Baina, abuztuaren 11n, BPFk Hauteskunde Batzordeari idazki bat aurkeztu zion, honakoa adieraziz: [(...) hauteskunde-prozesuaren hasieran, entitate horretako hauteskunde-batzordeari fitxategi batzuk entregatu zizkioten BPFren administrazio-zerbitzuek. Fitxategi horiek datu-base bat osatzen zuten, ez berriz, berezko hauteskunde-errolda bat. Emandako datu-base hori ez zen berez hauteskunde-errolda bat; izan ere, (datu-base) horretan zegoen pertsona edo erakunde guztiek ez dutelako zertan egon behar (hauteskunde-errolda) horretan (...). Egiatzen hori gertatuko bazen, ikusi ahal izan den moduan, hauteskunde-erroldak aipatutako arautegian ezarritako baldintzak beteko ez lituzketen pertsona eta erakundeak barne hartuko zituen (16 urtetik beherakoak, hildakoak, lizentziarik edo jarduerarik gabekoak, etab.) (...) Laburbilduz, eta BPFren hauteskunde-organoak edo hauteskunde-prozesuan eskumena zuten gainerako agintariak ulertu dutenari kalte eraginik gabe, bistakoa da errakuntza material bat edo egitatezko errakuntza bat gertatuko litzatekeela hauteskunde-erroldari dagokionez (...)].

7.- Irailaren 5eko eta 8ko bileretan, hauteskunde-batzordeak aurrerago adieraziko diren erabakiak hartu zituen.

8.- Irailaren 29ko bileran KJEBk erabaki zuen - [REDACTED] jaunak eta 11 pertsona gehiagok eskatuta- Bizkaiko Padel Federazioaren hauteskunde-prozesua etetea.

LAUGARRENA.- [REDACTED] jaunak eta 11 pertsona gehiagok egindako errekurtsua, irailaren 5ean eta 8an Hauteskunde Batzordeak hartutako erabakien kontrakoa.

Erabaki hauek hartu ziren:

1.- 5. eguna: **a)** hauteskunde-egutegi berria onartzea; **b)** hauteskunde-errola berria onartzea; **c)** Batzar orokorraren osaera onartzea; eta **d)** aipaturiko erabakiak argitaratzea eta hauteskunde-batzordearen aurrean egiteko erreklamazio-epea onartzea: bi eta bost egun –epe hori aplikagarria izango da bakarrik hauteskunde-errola onartzen baldin bada-.

2.- 8. eguna: Erabaki horien errekurtsioa aurkeztu ondoren, irailaren 8an hauteskunde-batzordeak gaitzetsi egin zituen.

Alderdiek arrazoi hauek eman zituzten:

Errekurtsogileek honakoa iritzia dute hauteskunde-errola onartzeko erabakiari dagokionez: **a)** orain onartu denak (irailaren 5ean eta 8an) apirilaren 19ko ebazpenean behin betikotzat jo zena aldatzen du; **b)** egintza hori ofizioz berrikusteak 30/1992 Legearen 102. artikuluan xedatzen den prozedura jarraitzea eskatzen du; eta **c)** era berean, uztailaren 14ko bileran KJEBk erabakitakoa «saihestea» esan nahi du.

Bere aldetik, hauteskunde-batzordeak hauxe argudiatu zuen irailaren 8ko ebazpenean: **a)** Hauteskunde-batzordeak, ofiziozko administrazio-prozedura batean zehar, posible du bere egintzak ofizioz baliogabetzea, eta horien ondorioz, berak egindako jarduketaren atzera egitea xedatzea, izapidetze egokia egiteko. Halaber, ezerk ezingo luke saihestu hauteskunde-organoak topatzen dituen «sakoneko» beste hutsune batzuk ofizioz konpontzea; **b)** nahiz eta aurkeztutako errekurtsioetan adierazten den «hauteskunde-errola onartzea behin betiko egintza sendoa dela, kontua da ofiziozko administrazio-egintzen berrikuspena egin daitekeela»; **c)** 2012ko otsailaren 19ko Kultura sailburuaren Aginduaren 33.7 artikulua araber, egintzak edo hauteskunde-izapideak mantentzeko printzipioa bakarrik dagokie aurrera eramandako hauteskunde-egintzen baliogabetze-egoera gorien eragina izan ez dutenei; **d)** Nolabait pentsa daiteke Aginduaren 26.2 artikuluan esandakoa ez dela betetzen; izan ere, –hitzez-hitzeko aipua– [kasu honetan ez dago inolako «aurkaratzerik» erroldaren kontra; hauteskunde-organoaren ebazpen bat baino ez da dago,

prozesua hauteskunde-errolda behin-betiko onartu aurreko une batera atzera eramatea erabakitzen duena»].

Azkenik, BPFk honako alegazio hauek egin zituen:

a) KJEBren uztailaren 14ko ebazpena zuzenbidera egokitzen da erabat;

b) BPFko jarduneko presidenteak, abuztuaren 11ko idazkiaren bitartez, hauteskunde-batzordeari honakoa helarazi zion [«(...) BPFren estatutuetan (16.1 art.) espresuki adierazten da Batzar Orokorraren osaera, zehazki: gobernu-organo hori hainbat estamentuen ordezkari osatzen dute, honako proportzio honetan: Kirol-klubetako estamentuko 10 ordezkari, kirolarien estamentuko 3 ordezkari, epaileen estamentuko 1 ordezkari eta teknikarien estamentuko 1 ordezkari. Halaber, ikusi zen prozesu-hasieran (2016ko apirilaren 9an) hauteskunde-organoak egindako akordioaren bidez, ezarri zela Batzar Orokorra kirol-klubetako estamentuko 9 ordezkari, kirolarien estamentuko 3 ordezkari eta epaileen eta teknikarien estamentuko 3 ordezkari osatuko zela (...) eta Bizkaiko Padel Federazioaren administrazio-zerbitzuek erakunde horretako hauteskunde-organoari emandako datu-baseak ezin zuela osatu berezko hauteskunde-errolda; izan ere, pertsona eta erakunde guztiek ezarritako baldintzak erregelamenduz eta araei jarraikiz betetzen dituztela egiaztatu behar da. Egiaztapen hori gertatuz gero, ikusi ahal izan den moduan, hauteskunde-erroldak aipatutako arautegian ezarritako baldintzak beteko ez lituzketen pertsona eta erakundeak barne hartuko zituen (16 urtetik beherakoak, hildakoak, lizentziarik edo jarduerarik gabekoak, etab.). Horrenbestez, Bizkaiko Padel Federazioaren hauteskunde-batzordeak uler zezakeen erakunde horretako administrazio-zerbitzuek helarazitakoa zela erreferentziazko arautegian ezarritako baldintzak betetzen zituzten pertsonen eta erakundeen hauteskunde-errolda, eta, adierazitakoaren arabera, egia esateko eman zena lehendik zegoen artxibo edo datu-base orokor bat baino ez zen.

c) BPFk bat egiten du tesi honekin: hauteskunde-batzordeak egintzak *ex officio* atzera eraman ahal ditu hauteskunde-prozesua indarrean dagoen bitartean, beti ere, hutsune zehatz batzuk edo akats konpongarri batzuk baldin badaude.

BOSGARRENA.- Eztabaida modu horretan planteatuta, ebatzi behar zen ea hauteskunde-batzordeak, irailaren 5eko bileran, aurreko apirilaren 19an hartutako erabaki bat mundu juridikotik desagerrarazi ahal izan zuen, une horretan aplikagarria zen 30/1992 Legeak xedatutako ofiziozko berrikuspenaren prozedurari jarraitu gabe.

Erantzuna ezezkoa da.

Apirilaren 19ko erabakia irmo bilakatu zen, haren kontra errekurtsio egokiak ez baitziren aurkeztu. Beraz, erreakzio-bide bakarra, orain, berrikustea da.

Ofizioz berrikustek esan nahi du aurretik burututako egintza bat baztertuko duela administrazioak, aurkako zeinua duen beste egintza baten bitartez (eskumen hori hauteskunde-batzordeari zabal dakioke administrazio-izaera duten funtzio publikoak egiten dituelako); baina horretarako, prozedura bat jarraitu behar du: garai hartan, 30/1992 Legearen 102. artikulutik 106.era bitartean xedatutakoa; eta, orain, urriaren 1eko 39/2015 Legearen 106. artikulutik 112.era bitartean xedatutakoa. Eta egoera horretan, apirilaren 19ko erabakia berrikusi zen aplikazio-arautegian zeuden araei eta aurreikuspenei jarraitu gabe.

SEIGARRENA.- BPFk aurkeztutako errekurtsioaren inguruan epaia ematea falta da orain. Hauxe dio eskaera-atalak: «Eskatzen dut 2016ko irailaren 29ko KJEBren erabakiaren kontrako berraztertze errekurtsio hori aurkeztutzat har dadin, baietsi dadin, eta, ondorioz, errekurritutako ebazpen administratiboa baliogabetua eta efekturik gabe gera dadin, hauteskunde-prozesua bertan behera uzteko».

Adierazi dugun moduan, irailaren 29an batzorde honek Bizkaiko Padel Federazioaren hauteskunde-prozesua etetea erabaki zuen; horrenbestez, BPFk

orain nahi du etete hori desegin dezagun eta hauteskunde-batzordeari hauteskunde-eroldarekin jarraitzeko baimena eman diezaiogun.

Uzi hori gaitzetsi beharra dago; izan ere, BPFk ez du erabaki horren errekurtsua aurkezteko legitimaziorik. Hauteskunde-batzordeak ere ez du.

Eztabaida horri –federazioen legitimazioa errekurtsua aurkezteko– batzorde honek aurretiaz erantzun izan dio, 33/2011 espedientean honako hau adierazi zuenean: «*Kirol-federazioak izaera pribatuko elkarteak dira –ekainaren 11ko Euskal Kirolari buruzko 14/1998 Legearen 15. artikulua– eta administrazio-izaerako funtzio publikoak ematen zaizkie; horien artean, diziplinakoa – lege beraren 25.1.f) artikulua–. Horrela, kasu horietan jardutean administrazioaren agente gisa egiten dute, eta, horrenbestez, ez dute errekurtsua aurkezteko legitimaziorik, eskuordetutako ahalmen horretan aurretiaz hartutako aurkako erabaki horien kontra.*

Ondorioz, federazioek beren elkartearen interesen kontrako administrazioaren erabakien aurkako errekurtsuak aurkezteko legitimazioa badute ere, ez dute legitimaziorik administrazioak emandako ebazpenak aurkaratzeko, administrazioari dagozkion administrazio-ahalmenak erabiliz eman direnak. Errekurtsogileak, hain zuzen, ahalmen administratibo horiek zituen hasieran administrazioak eskuordetuta, kasu honetan bezala.

Beraz, uste dugu federazio errekurtsogileak ez duela legitimaziorik 2012ko apirilaren 2an KJEBk hartutako erabakiaren aurkako errekurtsua aurkezteko, zeinak ... errekurtsua ebatzi baitzuen”.

Aurreko hori guztia aintzat hartuta, KJEBk honako hau

EBAZTEN DU

1.- Baiestea [REDACTED] jaunak eta 11 pertsona gehiagok aurkeztutako errekurtsua, hauteskunde-batzordeak irailaren 5ean eta 8an hartutako erabakien kontrakoa.

2.- Ez onartzea Bizkaiko Padel Federazioak aurkeztutako errekurtsua, irailaren 29an batzorde honek hartutako erabakiaren kontrakoa.

Erabaki honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beraren aurka, aukerako berraztertze-errekurtsua aurkeztu ahal izango diote interesdunek Kirol Justiziako Euskal Batzordeari, hilabeteko epean, erabakia jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera; bestela administrazioarekiko auzi-errekurtsua aurkeztu ahal izango dute Gasteizko Administrazioarekiko Auzien Epaitegian edo errekurtsu-egileen helbidearen arabera dagokienean, bi hilabeteko epean, erabakia jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, halaxe xedatzen baitu Administrazioarekiko auzien jurisdikzioari buruzko uztailaren 13ko 29/1998 Legeak.

Vitoria-Gasteiz, 2016ko azaroaren 3a

JOSE LUIS AGUIRRE ARRATIBEL
Kirol Justiziako Euskal Batzordeko presidentea